**TOLOSAKO UDALA**

Tolosako Udalak, 2023/2017 dekretu bidez, honako erabaki hau hartu du:

**Lehenengoa.** Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko diru laguntza programaren 2023ko deialdia onartzea.

**Bigarrengoa.** Onartutako deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Deialdi hau honako oinarri juridiko hauetan oinarrituta egiten da:

- Tolosako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udal honen Osoko Bilkurak 2017ko apirilaren 25ean onartua eta 2017ko uztailaren 7ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua (130. zk.); ondoren, udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26ean egindako Osoko Bilkuran ordenantza orokorraren aldaketa onartu zuen (GAO, 68.zk).

- Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantza, Udalbatzak, 2021eko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran behin betikoz onartua eta 2021eko azaroaren 5ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua (212. zk.); ondoren, Udalbatzak 2022ko azaroaren 18an egindako Osoko Bilkuran ordenantza espezifikoaren aldaketa onartu zuen (GAO, 219. zk.); eta, azkenik, Alkateak, Udalbatzaren ahalmenaz baliatuta, Dekretuz 2023ko otsailaren 28an ordenantza espezifikoaren aldaketa behin betikoz onartu zuen (GAO, 46. zkia).

**AYUNTAMIENTO DE TOLOSA**

El Ayuntamiento de Tolosa, por decreto 2023/2017 ha adoptado el siguiente acuerdo:

**Primero**. Aprobar la convocatoria 2023 del programa de subvenciones para la reactivación de la economía urbana de Tolosa.

**Segundo.** Publicar las bases aprobadas y la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios.

Esta convocatoria se realiza en base a los siguientes fundamentos jurídicos:

- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, aprobada por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el 25 de abril de 2017 y publicada en el BOLETÍN OFICIAL DE GIPUZKOA el 7 de julio de 2023 (n.º 130); posteriormente, el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 26 de enero de 2023 aprobó la modificación de la ordenanza general (BOG nº68).

- Ordenanza del programa de subvenciones para la revitalización de la economía urbana de Tolosa, aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 28 de octubre de 2021 y publicada en el BOLETÍN OFICIAL DE GIPUZKOA nº 212, de 5 de noviembre de 2021; posteriormente, el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 18 de noviembre de 2022 aprobó la modificación de la ordenanza específica (BOG nº 219); finalmente, la alcaldesa, por facultad del Pleno, aprobó definitivamente la modificación de la Ordenanza específica por Decreto de Alcaldía el 28 de febrero de 2023 (BOG, nº46).

**Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko diru laguntza programaren deialdia**

**Programa de subvenciones para la reactivación de la economía urbana de Tolosa**

**XEDAPEN OROKORRAK**

**DISPOSICIONES GENERALES**

**1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea**

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak emateko arauak ezartzea hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzeko, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, enpresa-ekimen berriak abiarazteko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko.

**Artículo 1. Objeto de las bases reguladoras de estas subvenciones**

El objeto de las presentes bases es establecer las normas que han de regir la concesión de subvenciones para el mantenimiento de la actividad económica, el empleo y la competitividad en el ámbito de la economía urbana, mediante el fomento y la revitalización de la actividad local, la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales y la dinamización de los espacios de calle vacíos.

Oinarri hauetarako hiri-ekonomiaren esparruan sartuko dira merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismo sektoreko jarduerak.

Para estas bases, en el marco de la economía urbana se incluirán el comercio, los servicios asociados a la actividad comercial urbana, las actividades del sector hostelero o turístico.

Dirulaguntzen banaketa, ondoren jasotzen diren eta eranskin gisa identifikatzen diren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera egingo da.

La distribución de las subvenciones se realizará de acuerdo con lo establecido en las bases específicas que se recogen a continuación y que se identifican como anexos.

**2. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea**

Dirulaguntza lerro hau 2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatua dago, Udalbatzak, 2022ko abenduaren 15ean eginiko Osoko Bilkuran onartua, eta GAOn 2023ko otsailaren 1ean argitaratua (21 zk.).

**Artículo 2. Integración en el Plan Estratégico de Subvenciones**

Esta línea de subvenciones está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa 2023-2025, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 15 de diciembre de 2022 y publicado en el BOG nº 21 de 1 de febrero de 2023.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko horretan zehazten dira zein helburu eta ondorio iritsi nahi diren diru laguntza hau aplikatuta, zein diren horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta bere finantzaketa-iturriak, baina, betiere,

En dicho Plan Estratégico de Subvenciones se detallan los objetivos y conclusiones que se pretenden alcanzar con la aplicación de la presente subvención, el plazo para su obtención, los costes previstos y sus fuentes de financiación, condicionados en todo caso al

aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeko baldintzarekin.

**3. artikulua. Kreditu erabilgarria**
Deialdi honetarako Tolosako Udalak ehun eta zazpi mila bostehun (107.500,00) euro bideratuko ditu. Berriz Tolosa programaren baitan, alokairu gastuetarako 37.500,00€ aurreikusten dira; Ekin programan, alokairu-gastuetarako 50.000,00€; eta, Ekin programan erosketa eta birgaitze lanetarako eta Berriz Tolosa programan, erosketarako 20.000,00€, 1100.471.02.431.00 (2023), 1100.471.01.431.00 (2023) eta 1100.771.01.431.00 (2023) aurrekontu-partiden kargura, hurrenez hurren.

Beharra sortzen bada, Ekin programako alokairu partidan eta Berriz Tolosa programarako alokairu partidan ezarritako hasierako hornidurak moldatzeko aukera egongo da. Behin zehaztutako helburua bete ostean, partida batean gerakinik badago, soberakin hori beste partidara bideratu ahal izango da. Inolaz ere ezingo da hori egin 1100.771.01.43100 partidarekin.

Emakidaren ebazpena emateko kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da gastuaren aurrekontu-estaldurarako, emakida ebazten den unean. Era berean, banaketa-aldaketak aurrekontua exekutazeko arauan ezarritako lotura-mailen eta kreditu-transferentzien araubideari aplikatu beharreko araudiaren arabera egin beharko dira.

**4. artikulua. Onuradunak**
Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela

cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

**Artículo 3. Crédito disponible**
El Ayuntamiento de Tolosa destinará a esta convocatoria ciento siete mil quinientos (107.500,00) euros con cargo a las partidas presupuestarias 1100471.02.431.00 (2023), 1100.471.01.431.00 (2023), 1100.771.01.431.00 (2023); en concreto, 37.500,00 € para los gastos de alquiler del programa Berriz Tolosa, 50.000,00 € para el gasto del alquiler del programa Ekin y 20.000,00€ para los gastos de rehabilitación y compra de Ekin y de compra de Berriz Tolosa, respectivamente.

En caso de necesidad, se podrán adaptar las dotaciones iniciales establecidas en la partida de alquiler del programa Ekin y en la partida de alquiler del programa Berriz Tolosa. Una vez cumplido el objetivo establecido, si existe remanente en una partida, dicho excedente podrá ser destinado a la otra partida. En ningún caso podrá realizarse eso con la partida 1100.771.01.43100.

La presente resolución de la concesión quedará condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para la cobertura presupuestaria del gasto en el momento de la resolución de la concesión. Asimismo, las modificaciones de distribución deberán realizarse de acuerdo con los niveles de vinculación establecidos en la norma de ejecución presupuestaria y la normativa aplicable al régimen de transferencias de crédito.

**Artículo 4. Personas beneficiarias**
Podrán ser personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas, las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y las personas jurídicas, cualquiera que sea su

ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Kasuan kasu, hiru onuradun profil daude:

1. Ekintzaileak.
2. Merkataritza lokal hutsen jabeak.
3. Tolosan beste merkataritza saltoki baten jabeak.

Aurreko ekitaldian egindako eskabideak deialdi honetan sartuko dira, baldin eta, onuradun izaera lortu arren, kreditu faltagatik baztertuak izan baziren, betiere oinarri hauetan ezarrita dauden baldintzak betetzen badituzte. Kasu horretan, nahikoa izango da inskripzio-orri eguneratua aurkeztea.

**5. artikulua. Onuradunen betekizunak**

Onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak honako hauek dira:

1. Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, eta Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharrak.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.

3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren

naturaleza jurídica, y que cumplan los requisitos establecidos en las presentes bases.

En cada caso, existen tres perfiles de personas beneficiarias:

1. Personas emprendedoras.
2. Personas propietarias de locales comerciales vacíos.
3. Personas propietarias de otro local comercial en Tolosa.

La solicitudes realizadas en el ejercicio anterior que habiendo obtenido la condición de persona beneficiaria hubieran sido rechazadas por falta de crédito, se incluirán en esta convocatoria, siempre y cuando cumplan con las condiciones establecidas en estas bases. En dicho caso será suficiente presentar la hoja de inscripción actualizada.

**Artículo 5. Requisitos a cumplir por la persona beneficiaria**

Los requisitos generales a cumplir por las personas beneficiarias son los siguientes:

1. Hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social, asi como con sus obligaciones tributarias con Hacienda y el Ayuntamiento de Tolosa.

No podrán participar y estarán excluidas de la condición de personas o entidades beneficiarias:

1. Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.
2. Las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
3. Las entidades o empresas que incumplan las obligaciones establecidas en la Ley 4/2005

18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.

4.- Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, generoidentitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrita: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Diru laguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.

**6. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea**

Hautaketa-prozeduraren modalitatea izango da deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez, Diru laguntzen Ordenantza Orokorraren baitan.

para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

4.- Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o por factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurran otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, las opiniones políticas o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la figuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

Se establece la prohibición de acuerdo con las siguientes disposiciones: artículos 4, 3.1 y 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para una vida libre de violencia machista contra las mujeres, 13.3 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997 y 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

Las condiciones específicas para la solicitud de cada línea subvencional serán las establecidas en las bases específicas de los anexos que se acompañan a las presentes bases generales.

**Artículo 6. Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes**

La modalidad del procedimiento de selección será mediante convocatoria y procedimiento selectivo único, en el marco de la Ordenanza General de Subvenciones.

**- Aurkezteko modua:**
Interesdunak dagokion diru laguntza lerroak duen eskabide orria aurkeztu beharko du.

**- Aurkezteko lekua:**
Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

a. Aurrez aurre, UDATEn.
b. Erregistro elektronikoaren bidez.
c. Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
d. Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere.

**- Aurkezteko epea:**
Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko urriaren 14an amaituko da.

**7. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko agiriak**
Interesdunak jarduera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa eranskin bakoitzean zehaztuko da.

39/2015 Legearen 28.2 artikuluaren arabera, administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dauden edo edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, arrazoia justifikatu

**- Forma de presentación:**
La persona interesada deberá presentar el impreso de solicitud de la línea de subvención que solicite.

**- Lugar de presentación:**
Las personas físicas podrán presentar sus solicitudes:

a. Presencialmente en UDATE.
b. A través del registro electrónico.
c. En las oficinas de Correos, en la forma que reglamentariamente se determine.
d. En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones vigentes.

En el caso de entidades o personas jurídicas, deberán presentarse obligatoriamente en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, así como en el resto de registros electrónicos a que se refiere el Artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**- Plazo de presentación:**
El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente a la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el día 14 de octubre de 2023.

**Artículo 7. Documentación a presentar para realizar la solicitud**
La documentación a presentar por la persona interesada para cada actividad se especificará en cada anexo.

El Artículo 28.2 de la Ley 39/2015 establece que la Administración actuante podrá consultar o acceder a los documentos que ya se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier Administración, salvo que la persona interesada se oponga a ello. En este caso, deberá justificar el motivo y aportar

beharko du, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu, izapidetzeko.

Ildo horretan, eta hala badagokio, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez:

- JEZren epigrafean alta ematea.
- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Tolosako Udalarekiko zorrak egunean dituela.
- Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.

Arazo teknikoak medio, kontsulta ezin bada egin datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez, salbuespen gisa, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentazioa aurkezteko.

los documentos correspondientes para su tramitación.

En este sentido, y si procede, a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se consultarán los siguientes documentos necesarios para la resolución del procedimiento:

- Alta en el epígrafe del IAE.
- Certificado de estar al corriente de los pagos con Hacienda y Seguridad Social.
- Estar al corriente en el pago de sus deudas con el Ayuntamiento de Tolosa.
- Licencia en vigencia o certificado acreditativo de estar en trámite de legalización de la licencia, previa contestación en tiempo y forma a los requerimientos efectuados al efecto por el Ayuntamiento.

Cuando por problemas técnicos no sea posible realizar la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, excepcionalmente se podrá requerir a la persona solicitante la aportación de la documentación.

**8. artikulua. Akatsak zuzentzea**

Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Artículo 8. Subsanación de errores**

Si el impreso de solicitud o la documentación que debe acompañarla adoleciera de algún defecto o inexactitud, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane los defectos observados.

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistida de su solicitud y se archivará el procedimiento, previa resolución, de conformidad con lo establecido en el Artículo 68 de la Ley 39/2015.

**9. artikulua. Ebazpena jakinarazteko epea**

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikuluak xedatzen duen moduan.

Emakidari buruzko behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

**10. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak**

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiltzea, eta laguntza jasotzen den bitartean establezimendua azken bezeroarentzat zabalik edukitzea.
- Diru laguntza lokala eskuratu edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki beharko da 5 urteko epean, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikuluak xedatzen duen moduan. Diru laguntza alokairua finantzatzeko jasotzen bada, aldiz, gutxienez, urtebeteko epean.
- Udalari jakinaraztea onuradunak jarduera etetea aukeratzen badu. Ondorio horietarako, ulertuko da jarduera etenda dagoela establezimenduak publikoarentzat itxita hilabete baino gehiago badarama, arrazoi justifikatua salbu.
- BERRIZ TOLOSA edo EKIN programaren irudia lokalaren

**Artículo 9. Plazo de notificación de la resolución**

El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones será de seis meses a contar desde el día siguiente a la finalización del plazo de presentación de solicitudes, tal y como establece el Artículo 25.5 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

La resolución definitiva de concesión se notificará a las personas interesadas.

**Artículo 10. Obligaciones y derechos de la persona beneficiaria**

Son obligaciones de la persona beneficiaria:

- Destinar el local subvencionado exclusivamente al desarrollo de la actividad inicialmente comunicada y mantener el establecimiento abierto al cliente final durante la percepción de la ayuda.
- En el caso de que la subvención sea para la adquisición o rehabilitación del local, deberá utilizarse para el desarrollo de la actividad comunicada y mantener el establecimiento abierto al cliente final en el plazo de 5 años, tal y como dispone el artículo 31.4 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Si la subvención se recibe para financiar el alquiler, al menos en el plazo de un año.
- Comunicar al Ayuntamiento si el beneficiario opta por el cese de la actividad. A estos efectos, se entenderá suspendida la actividad cuando el establecimiento lleve cerrado al público más de un mes, salvo causa justificada.
- Colocar de forma visible en el escaparate del local la imagen del programa BERRIZ TOLOSA o EKIN.

erakusleihoan jartzea, ikusteko moduan.

- Euskara eta hizkuntza-paisaia: oharrak, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barrualdeko komunikazio finko eta iraunkorrak gutxienez euskaraz egingo dira.
- Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestu beharko dute, eta berdintasun-balioak dituen irudia sustatu beharko dute.
- Hondakinak gaika sailkatzea eta dagokien lekuan uztea, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideei jarraituz.
- Gastu bererako beste diru laguntza edo laguntzarik jasoz gero, Udalari horren berri ematea.
- Oro har, Diru laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako beste edozein.
- Gainera, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

- Euskera y paisaje lingüístico: las notas, señales, carteles y demás comunicaciones generales exteriores (publicidad, marketing y entorno digital) e interiores fijas y permanentes se realizarán al menos en euskera.
- La documentación, publicidad, imagen o materiales generados en el marco de la actividad subvencionada deberán hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad.
- Clasificar selectivamente los residuos y depositados en el lugar que corresponda, siguiendo las instrucciones del Ayuntamiento de Tolosa y la Mancomunidad de Tolosaldea.
- Comunicar al Ayuntamiento la obtención de otras subvenciones o ayudas para el mismo gasto.
- En general, cualesquiera otras recogidas en el Artículo 14 de la Ley General de Subvenciones.
- Además, deberán cumplir lo establecido en las bases específicas de los anexos que acompañan a estas bases generales.

Honako hauek dira onuradunaren eskubideak:

- Euskara Sailak sustatutako Merkataritza programan parte hartzeko lehentasuna.

Son derechos de la persona beneficiaria:

- Tener prioridad para participar en el programa de Comercio promovido por el Departamento de Euskera.

**11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna**

Oinarri hauen xede diren diru laguntzak beste diru laguntza, laguntza, diru-sarrera edo

**Artículo 11. Concurrencia y compatibilidad de las ayudas**

Las subvenciones objeto de estas bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas,

baliabide batzurekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

ingresos o recursos, siempre que en su conjunto no se supere el coste de los gastos subvencionables.

Hemen arautzen diren diru laguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuen diru laguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu behar.

En ningún caso el importe de las subvenciones aquí reguladas podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, supere el coste de la actividad subvencionada.

Onuradunak arau honetan erregulatutako xede bererako diru laguntza lortu edota eskatzen badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Udalari.

En el caso de que la persona beneficiaria obtenga y/o solicite subvención para la misma finalidad que la regulada en la presente norma, lo comunicará de forma fehaciente al Ayuntamiento.

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita.
Soberakina itzuliko zaie diru laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren Zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación. El reintegro del exceso se hará a favor de las entidades concedentes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas. No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el Importe total del exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolanahi ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo diru laguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

**12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia**
Testu honetan araut研tutako diru laguntzek arau xedapen hauetan ezarritakoa bete behar dute:

**Artículo 12. Normativa aplicable**
Las subvenciones reguladas en el presente texto se ajustarán a lo establecido en las siguientes disposiciones normativas:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru laguntzei buruzkoa.
- 1/2022, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.
- Diru laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadi toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Tolosako Udalaren Diru laguntzen Ordenantza Orokorra, 2023ko urtarrilaren 26koa.
- 2023-2025 Diru laguntzen Plan Estrategikoa.

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento, de 26 de enero de 2023.
- Plan Estratégico de Subvenciones, 2023-2025.

**AZKEN XEDAPENA**

**Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) inguruan**

Ekintzaile batek EKIN programarako diru laguntza jasotzeko eskaera egiten badu, eta IV. eranskinean zehazten diren Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) talde edo epigraferen batean altan emanda ez badago, Batzorde Teknikoak ahalmena izango du erabakitzeko proiektua onartu edo ez, ekintzaileak aurretik justifikatu ostean; betiere, jarduera Ordenantza honetan jasotzen den hiri-ekonomiako sektoreren batekoa bada, eta ekintzailea, diru laguntza eskaera egiteko unean, JEZn alta emanda badago.

**DISPOSICIÓN FINAL**

**Respecto al Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE)**

En el caso de que una persona emprendedora presente una solicitud de subvención para el programa EKIN, y la persona solicitante no esté dada de alta en alguno de los grupos o epígrafes del Impuesto de Actividades Económicas (IAE) que se detallan en el Anexo IV, la Comisión Técnica estará facultada para decidir si acepta o no el proyecto, previa justificación de la persona emprendedora, siempre que la actividad pertenezca a alguno de los sectores de la economía urbana recogidos en esta Ordenanza, y la persona esté dada de alta en el IAE en el momento de realizar la solicitud de la subvención en cuestión.

**I. ERANSKINA: NEGOZIOEN ARTEKO ESKUALDAKETA SUSTATZEKO EMATEN DIREN DIRU LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – BERRIZ TOLOSA**

**1. artikulua. Helburua**

BERRIZ TOLOSA programaren helburua da enpresen eskualdaketa egin eta Tolosako negozio baten ardura hartu nahi duten pertsonei diru laguntzak emateko baldintzak arautzea.

**2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

Honen bitartez, negozioaren ardura hartu duten pertsonei diruz lagunduko zaizkie negozioa garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

**3. artikulua. Onuradunen betekizunak**

Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako diru laguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

1. Aldez aurretik, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-jarraipeneko BERRIZ ENPRESA programan parte hartu izana, Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, eta programan ezarritako baldintzak betetzea.
2. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.
3. Eskualdatutako negozioaren jarduera hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, ostalaritza edo ostatua.
4. Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.
5. Diru laguntza eskatzerako orduan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea.

**ANEXO I: BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL FOMENTO DEL TRASPASO ENTRE NEGOCIOS – BERRIZ TOLOSA**

**Artículo 1. Objetivo**

El programa BERRIZ TOLOSA tiene por objeto regular las condiciones de concesión de subvenciones a las personas que, tras la transferencia de una empresa, deseen hacerse cargo de un negocio en Tolosa.

**Artículo 2. Actividades a subvencionar**

Se les subvencionarán los gastos de alquiler o compra del local donde se va a desarrollar el negocio a las personas que se han hecho cargo del mismo.

**Artículo 3. Requisitos de acceso a la subvención**

Los requisitos para acceder a la subvención para gastos de alquiler o compra del local son los siguientes:

1. Haber participado previamente en el programa de continuidad empresarial del Gobierno Vasco BERRIZ ENPRESA, en colaboración con la Cámara de Gipuzkoa, y cumplir los requisitos establecidos en el mismo.
2. Ubicar la actividad en un establecimiento situado en Tolosa.
3. La actividad del negocio transferido debe pertenecer a alguno de los sectores de la economía urbana: comercio, hostelería o alojamiento.
4. Disponer de licencia vigente o certificado acreditativo del trámite de legalización de la licencia, previa contestación en tiempo y forma a los requerimientos efectuados al efecto por el Ayuntamiento.
5. Estar dado de alta en el IAE en el momento de solicitar la subvención.

6. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.
7. Azken 60 hilabeteen aurretik Tolosako Udalaren aldetik helburu bererako edo antzekorako diru laguntzarik jaso ez izana. Baldintza hori pertsona juridikoak eta hura osatzen duten pertsona bakoitzak bete beharrekoa izango da.
8. Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez izatea.
9. Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza-ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu, laguntza emateko, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, eta, nolanahi ere, negozioa transferitzeko arrazoi justifikatua egon beharko du.

6. Si el local ha sido arrendado, que el contrato tenga una duración mínima de 12 meses.
7. No haber recibido con anterioridad a los últimos 60 meses ninguna subvención por parte del Ayuntamiento de Tolosa para el mismo o similar fin. Este requisito se referirá tanto a la persona jurídica como a cada una de las personas integrantes de la misma.
8. La persona emprendedora no debe ser socia o partícipe de la persona física o jurídica que actúe como vendedor/a o arrendador/a.
9. En caso de parentesco de primer o segundo grado de afinidad o consanguinidad con la persona que vende o alquila el local, para la concesión de la ayuda se estudiará individualmente cada caso, debiendo concurrir en todo caso causa justificada de transferencia del negocio.

**4. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

a) Alokairu-gastuetarako: eskatzaile bakoitzari gehienez ere 12 €/m² emango zaizkio, gehienez honako zenbateko hauekin, BEZa kontuan izan gabe:

- Lehen urtean, 450€/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren %75.
- Bigarren urtean, 300€/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren %50.
- Hirugarren urtean, 150€/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren %25.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00€, bigarrenean, 3.600,00€ eta hirugarrenean, 1.800,00€, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio.

**Artículo 4. Cuantía máxima de la subvención**

a) Para gasto de alquiler: el importe máximo de subvención a conceder a cada solicitante, excluido el IVA, será de 12 €/m², con los siguientes máximos:

- En el primer año, 450€/mes, hasta el 75% del gasto de alquiler.
- En el segundo año, 300€/mes, hasta el 50% del gasto de alquiler.
- En el tercer año, 150€/mes, hasta un 25% del gasto de alquiler

En todo caso, el importe total de las ayudas por persona beneficiaria no podrá superar la cantidad de 5.400,00€ el primer año, 3.600,00€ el segundo año y 1.800,00€ el tercero, siempre

que se mantenga la actividad durante esos tres años.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, diru laguntzaren oinarria kalkulatzeko hori ere kontuan hartuko da.

La base para calcular el importe de la subvención será exclusivamente la correspondiente a los gastos de alquiler (excluido el IVA y los pagos y retenciones de otros impuestos y tasas). Excepcionalmente, en el supuesto de que la empresa no deduzca el IVA, ésta se tendrá en cuenta también para el cálculo de la base subvencional.

b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada: lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.000 €/m² izango da. Lokala erosteko diru laguntza prezioaren %10ekoa izango da, zergak alde batera utzita, eta gehienez 10.800 eurokoa.

b) Para gastos de adquisición: en el caso de adquisición del local, el precio máximo por metro cuadrado útil será de 1.000 €/m². La subvención a la adquisición del local será del 10% de su precio, impuestos excluidos, y, como máximo, de 10.800 €.

Nolanahi ere, onuradun bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko osoa honela banatuko da: %50 lehen urtean, %30 bigarren urtean eta %20 hirugarren eta azken urtean.

En todo caso, el importe total de la ayuda concedida por persona beneficiaria se repartirá de la siguiente manera: el 50% en el primer año, el 30% en el segundo año y el 20% en el tercer y último año.

Alokairu edo erosketa kontratuan agertzen den egunetik aurrera ordainduko da diru laguntza.
Laguntzaren eskatzaileak bere gain hartzen badu bi establezimendu alokairuan edo erosketan dituen negozio bat, bigarren establezimenduaren laguntza % 50ekoa izango da, eta guztira bigarren establezimendu horrengatik 5.400,00€ jaso ahal izango ditu laguntza jasotzen duen hiru urteetan. Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatuko da, aurrez ezarritako baldintzetan.

El pago de la subvención se realizará a partir de la fecha que figure en el contrato de arrendamiento o compra. En el caso de que la persona solicitante de la ayuda asuma por sí misma un negocio con dos establecimientos en alquiler o compra, la ayuda por el segundo establecimiento será del 50%, pudiendo llegar a percibir un total de 5.400,00€ durante los tres años de la recepción de la ayuda. En este caso, el límite máximo de ayuda por establecimiento se calculará individualmente en las condiciones previamente establecidas.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

En todo caso, las ayudas se concederán en la medida que exista disponibilidad presupuestaria.

**5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

**Artículo 5. Documentación a presentar para realizar la solicitud**

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoa (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, baldin eta eskatzaileak uko egin badio Udalak agiri horiek ofizioz kontsultatzeari.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.
4. Ondasun-erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eratze-eskrituraren edo -agirien fotokopia, eta, hala badagokio, arautzen duten estatutuena, udaletxean jasota ez badaude.
5. Ganberak bermatutako eskualdatze-ziurtagiria.
6. *Jardueraren titulartasun aldaketaren jakinarazpena* izeneko udal inprimakia (aurreko titularrak eta titular berriak sinatuta), Hirigintzako sailean aurretiaz aurkeztu ez bada.
7. Osasun departamentuko Elikagaien Establezimenduen Erregistroan titularitate aldaketa egin dela frogatzen duen egiaztagiria (hala badagokio).

a) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.

b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako erosketa-kontratua.
2. Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati

Para realizar la solicitud, la persona interesada deberá aportar la siguiente documentación:

1. Impreso de solicitud específico (disponible en la página web del Ayuntamiento).
2. Certificados de estar al corriente en las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, cuando la persona solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio de dichos documentos por parte del Ayuntamiento.
3. En el caso de personas apoderadas, documento de representación.
4. En el caso de comunidades de bienes, sociedades civiles y personas jurídicas, fotocopia de la escritura o documentos de constitución de la entidad y de los estatutos por los que se rige en su caso, en el caso de que no consten en el Ayuntamiento.
5. Certificado de transmisión avalado por la Cámara.
6. El impreso municipal *Comunicación de cambio de titularidad de la actividad* (firmado por el/la anterior titular y por el/la nuevo/a titular).
7. Acreditación del cambio de titularidad en el Registro de Establecimientos Alimentarios del Departamento de Sanidad (en su caso).

a) Para gastos de alquiler:

1. Contrato de alquiler firmado por ambas partes.

b) Para gastos de adquisición:

1. Contrato de compra firmado por ambas partes.
2. Justificante de la transferencia que acredite el pago total o parcial del precio de adquisición.

batean ordaindu dela egiaztatzen duena.

**6. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak**

Dirulaguntza emateko prozedura norgehiagoka bidezkoa izango da. Deialdia organo eskudunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hautaketa irizpidea eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, betiere pertsona edo erakunde eskatzaileak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.

**Artículo 6. Procedimiento de concesión y criterios de selección**

El procedimiento de concesión de la subvención será en régimen de concurrencia competitiva mediante convocatoria aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El criterio de selección será el orden cronológico de presentación de solicitudes, siempre que la persona solicitante cumpla los requisitos establecidos en esta Ordenanza y exista crédito suficiente.

**7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak**

**- Instrukzioa:**

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapenerako sailari dagokio.

**- Balorazioa:**

Ardura duen Sailak baloratu beharko ditu eskabideak, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.

**Artículo 7. Órganos competentes para la instrucción, valoración y resolución del procedimiento de concesión de la subvención**

**- Instrucción:**

La instrucción del procedimiento para la concesión de estas subvenciones corresponde al departamento de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio, Ferias y Fomento del Empleo del Ayuntamiento de Tolosa.

**- Valoración:**

Corresponde al departamento responsable la valoración de las solicitudes mediante el correspondiente informe técnico. La valoración y propuesta de concesión contenida en el informe se elevará a la Comisión Informativa correspondiente para dar su visto bueno. Posteriormente, se dará traslado al órgano competente para su resolución.

En caso de no existir crédito disponible en el presupuesto municipal para el ejercicio en el que se realiza la solicitud, las personas solicitantes podrán ser beneficiarias en la siguiente convocatoria. Esto dependerá del crédito disponible en el presupuesto municipal

y del número de solicitudes existentes en el momento.

Edozein kasutan, Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapenerako sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta diru laguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

En todo caso, corresponderá al Departamento de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio, Ferias y Fomento del Empleo su valoración y la propuesta de concesión con carácter retroactivo.

**- Ebazpena:**

Diru laguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

**- Resolución:**

El procedimiento de concesión de la subvención será resuelto por la concejalía delegada, de acuerdo con las competencias vigentes en cada momento y futuras posibles delegaciones en la organización administrativa del Ayuntamiento.

**8. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea**

Diru laguntzaren xede diren jarduketak 2023. urtearen barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

Aurreko ekitaldian egindako eskabideak salbuetsita daude, baldin eta, onuradun izaera lortu arren, baztertu egin badira kreditu faltagatik, eta horiek lehentasuna izango dute deialdi honetan, betiere oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kasu horretan, nahikoa izango da inskripzio-orri eguneratua aurkeztea.

**Artículo 8. Plazo de ejecución de las actuaciones**

Las actuaciones objeto de subvención deberán iniciarse dentro del año 2023 y serán subvencionadas durante los 3 años siguientes a la fecha de la resolución.

Se exceptúan las solicitudes realizadas en el ejercicio anterior que habiendo obtenido la condición de persona beneficiaria hubieran sido rechazadas por falta de crédito, las cuales tendrán prioridad en esta convocatoria, siempre y cuando cumplan con las condiciones establecidas en estas bases. En dicho caso será suficiente con presentar la hoja de inscripción actualizada.

**9. artikulua. Diru laguntza zuritzeko prozedura eta epeak**

Diru laguntzaren zuriketa aurkezteko epea sei hilean behin izango da diru laguntza ematen denetik 3 urteko epea bete arte.

Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako hau:

**Artículo 9. Procedimiento y plazos de justificación de la subvención**

El plazo de presentación de la justificación de la subvención será semestral desde la concesión de la subvención hasta el cumplimiento del plazo de 3 años.

Transcurrido el semestre se deberá presentar la justificación correspondiente al semestre anterior. En concreto, lo siguiente:

a) Diru laguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, baldin eta eskatzaileak uko egin badio Udalak agiri horiek ofizioz kontsultatzear.

a) Para gastos de alquiler:

1. Facturas de los alquileres junto con el justificante bancario correspondiente.
2. Certificados de estar al corriente en las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, cuando la persona solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio de dichos documentos por parte del Ayuntamiento.

b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:

